

GrAL PROZEDURA 2019-2020:

2019-2020ko GrAL defentsarako prozedura (iraila)

Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak

Gralen **Matrikula online** eta **Defentsa** modu **presentzialean** egingo dira, beti ere egoerak horretarako **aukera** ematen badu, bestela Defentsa on-line egingo da BBC bidez.

1. Minor bakoitzaren defentsa egunak:

Irailaren 23a: HEZIKETA BEREZIA

Irailaren 23a: HAUR HEZKUNTZARAKO TAILERRAK

Irailaren 24a: LEHEN HEZKUNTZARAKO PROIEKTUAK

Irailaren 24a: ATZERRIKO HIZKUNTZA

Irailaren 25a: EUSKARA HEZKUNTZARAKO TRESNA

2. Irailaren 11etik 17ra, ikasleak GRAL lana eta posterra gordailura bidali beharko ditu eta, irailaren 14tik 18ra, ikasleak matrikula eta defentsa eskaera GAUR bidez egin. [! PAUSO BAKOITZAREN ORDENA MANTENTZEA OSO GARRANTZITSUA DA]

2.1. **Gordailura bidali:** GRAL lana eta posterra PDF formatuan webgunean dagoen formulario bitartez atxikiturik bidali beharko duzu. Hona hemen pauso hori burutzeko linka eta azalpenak:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/gralen-matrikula>

2.2. **Matrikula egin:** LDAP-a erabili, GAURen sartu eta GRAL ikasgaiaren automatrikula burutu behar duzu. [! KONTUZ: EZINBESTEKO DA, LEHENIK, 3.1. PUNTUAN AIPATUTAKO DOKUMENTUAK FORMULARIO BIDEZ BIDALTZEA GERO MATRIKULA EGIN AHAL IZATEKO]

2.3. **Defentsa eskatu:** matrikula egin ondoren, BEHARREZKO DA defentsa eskaera egitea. Horretarako, GAURen LDAP-arekin sartuaz. Honi buruzko azalpen zehatzak honako linkean dagoen "GAUR aplikazioan ikasleentzako eskuliburua" dokumentuan aurki ditzakezu:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/lehen-hezkuntza-eta-haur-hezkuntza-graduak>

Izenburua aldatu behar bada, ikasleak defentsa eskaera baino lehenago egin beharko du aldaketa.

3. Zuzendariak, defentsa eskariari erantzun baino lehen, **GrAL lanaren izenburua berrikusi eta, hala dagokionean, zuzendu dezake**. Ikasleak defentsa eskatua duenean, eta zuzendariak eskaera hau erantzun aurretik, egin behar da hori.

4. Irailaren 18ean, Tribunalak izendatu eta zuzendariei jakinarazi.

5. Zuzendariak **defentsa eskaerari erantzun eta txostena igo GAUR** plataforman (irailaren 18a baino lehen). "GRALa defendatzeko onarpen txostena" inprimakiaren esteka hemen duzu eskuragarri:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/lehen-hezkuntza-eta-haur-hezkuntza-graduak>

6. Zuzendariak bere zuzendaritzapeko ikasleei tribunala jakinaraziko die eta, era berean, zuzendariak bere tribunalkideei helaraziko die ikasleek gordailura bidali duten lan bertsio bera.

7. Behin tribunalean ordutegia adostu ondoren, **zuzendariak ikasleari jakinaraziko dio defentsarako eguna eta ordua**.

8. Tribunalak, ezarritako irizpideen arabera, **kalifikazio prozesua burutuko du** (irailaren 25etatik urriaren 5 bitarte) eta GAURen argitaratuko du.